

FUTBOLARIA JAIOA EGITEN DA... BAINA NOIZ?

Gil S., Irazusta A., Ruiz B.F, Gil C.J., Irazusta D.J.

FUTBOLARIA JAIO EGITEN DA... BAINA NOIZ?

S. GIL

A. IRAZUSTA

B. F. RUIZ

C. J. GIL

D. J. IRAZUSTA

Basurtuko Institutu Medikoa.

Erizaintzako U. Eskola

Medikuntza eta Odontologia Fakultatea.

UPV/EHU

e-maila: nfpirasa@lg.ehu.es

Tlfnoa: 946045629

Lan hau Arenas Club de Getxo-ren eta UPV/EHUren arteko hitzarmenari esker eta Bizkaiko Foru Aldundiko Bizkaia-Bizkaialderen laguntzari esker egin da.

Sarrera

Jaiotzak urtean zehar era homogeneoan banatzen direnez, banaketa hau futbolarien populazioan mantenduko dela pentsa dezakegu.

Helburua

Futbol-talde bereko maila desberdinetako jokalarien jaiotze-datak aztertu eta beraien ezaugarri antropometriko eta fisiologikoekin erlazionatzea.

Materiala eta metodoak

Bost mailetakoko 242 futbolariak parte hartu zuten: Kadete B (K.B.: adina: 14.04 ± 0.28 ; $n=49$) eta A (K.A.: adina: 14.96 ± 0.19 ; $n=53$); Gazte B (G.B.: adina: 16.38 ± 0.55 ; $n=34$) eta A (G.A.: adina: $15.5 \pm$; $n=52$) eta senior (S: adina: 20.85 ± 1.85 ; $n=54$). 3. Maila)

Ondorengo parametroak aztertu ziren:

- Jaiotze-data: urtea eta hilabetea, 2 seihilekotan eta 4 hiruhilekotan zatituz.
- Antropometria neurriak: GREC-en protokoloa eta Heath-Carter-en metodoa erabiliz.
- Astrand testa: oxigenoaren kontsumo maximoa (absolutua eta erlatiboa) era ez-zuzenean zikloergometroan neurtuz.
- Jauziak: squat-jump, counter-movement jump eta drop-jump, Bosco-ren plataforma erabiliz.
- Sprintak: 30 metro eta 30 metro konoekin.
- Iraupena: 800 metroko serieak, abiadura handituz: 9, 10.5, 12, 13.5 eta 15 km/h. Serieetan eta errekupeazioan bihotz-maiztasuna neurtuz.

Emaitzen azterketarako SPSS estatistika programa erabili zen; seihilekoen arteko konparazioetarako student-en t testa eta Anova eta Scheffé hiruhilekoak konparatzeko.

Emaitzak

- Lehenengo seihilekoan jaiotako futbolari gehiago topatu dugu aztertutako maila guztietan. Guztira % 67.4 vs % 32.6.
- KB: lehenengo seihilekoan jaiotako jokalarien pisua, altuera, izterreko perimetroa, ukondoko eta eskumuturreko diametroak, hezur, muskulu eta hondakin pisu handiagoa dute, urtearen bigarren erdian jaiotakoek baino ($p < 0.05$).
- KA: nagusiagoak diren jokalariek (lehenengo seihilekoan jaiotakoek) iraupen-proban pultsazio gutxiago dute, bai serieetan baita errekupeazioan ere.
- GB: BMI, tolesturak, izterreko perimetroa, gantz portzentajea eta pisua eta endomorfia handiagoak dira, urteko lehenengo hiletan jaiotako futbolarietan.
- GA: lehenengo hiletan jaiotako futbolariak pisu, izter eta bernako perimetroak, ukondo eta orkatileko diametroak, gantz portzentajea eta muskuluen pisua handiagoa dute ($p < 0.05$).
- S: kasu honetan, bigarren erdian jaiotako jokalariek ukondo, belaun eta orkatileko diametroak eta hezur pisua handiagoa dute ($p < 0.05$).

Ondorioak

- Urteko lehen hiletan jaiotako jokalarari gehiago topatzen dugu. Mailak irailean jaiotakoekin hasten diren herrietan gauza bera gertatzen da.
- Lehenengo seihilekoan jaiotako jokalarariak, bigarrenean jaiotakoak baino handiagoak dira.
- KA taldearen iraupen-proban izan ezik, gainerako parametro fisiologikoetan ez dugu adinarekin erlazioatutako diferentzia adierazgarriak aurkitu.
- Beraz, jaiotako hilabetea faktore determinantea izan daiteke futbolarien aukeraketan; nagusiagoak eta parametro fisiko handiagoak dituzten jokalarariak aukeratuz, batez ere gazteagoak diren mailetan.

BIBLIOGRAFÍA

Eustat, Euskal Estatistika Erakundea. 1999

Esparza F: Manual de cineantropometría. Monografías Femed. 1. Edizioa. 1993

Simmons C, Paull GC. Season of birth bias in association football. Jsport Sci 2001 Sep; 19(9): 677-86